

Kontabilitatea: teoria eta praktika

Ansa Maiz, Lurdes
Elhuyar Edizioak

Kontabilitatearen hastapena bat dator pertsonen beren ekonomia zehaztu, zenbatu eta kontrolatzeko behararekin. Zer daukat? Zer zor dut? Zenbat irabazi dut? XXI. mendean, ingurune ekonomikoaren ezaugarriak ikusirik eta merkatuan parte hartzen duten erakundeen arteko harremanen konplexutasuna kontuan harturik, kontabilitatea da erabiltzaileen beharren arabera eboluzionatu edo bilakatu den informazio-sistema.

EDOZEIN UNETAN, KONTABILITATEAK GAI IZAN BEHAR DU erabiltzaileari behar duen informazioa, informazio eguneratua, eskaintzeko, hala, erabiltzailea erabaki arrazionalak hartzeko moduan izango baita. Egungo ekonomia- eta finantza-munduan, kontabilitatearen beharra nabaria da, zeren, esaera batek dioen bezala, “informazioa boterea da”.


Gaur egun, enpresen arrakasta informazio-sistema oso eta informatizatuan oinarritzen da, eta, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien (IKT) erabilerari esker, informazioa agente interesatu orori banatuko zaio.

Informazio hori osatzen laguntzeko sortua da liburu hau, kontabilitate orokorrari buruzko kontsulta-eskuliburua.

Izenburua: Kontabilitatea: teoria eta praktika. 2007ko kontabilitate-planera egokitua
Egileak: I. Azkue, A. Cerezo, A. Erkizia, E. Ibarloza (Donostiako Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola, EHU)
Neurriak: 17 x 24 cm
Orrialdeak: 477 + kontu-taula
Prezioa: 34 €

Eskuliburu klasikoa da, kontabilitate orokorrari buruzko sarrera-ikastaroetan erabiltzen den horietakoa, eta, halaber, liburutegiko edo lantokiko apalean, erabiltzeagatik azalak zeharo gastatuta izaten dituen kontsulta-liburu horietakoa ere bada.

Ez da egileek finantza-ekonomiari eta kontabilitateari buruz osatu duten lehenengo liburua, ezen jakintza horiek gurean eta beste ikastetxe askotan euskaraz ikasi dituzten ikasle askok dagoneko izan baitute aukera egileen beste zenbait eskuliburu erabiltzeko.

Liburu hau Espainiako Kontabilitate Plan Orokor berriari (2007ko azaroan onartutakoari) egokitutakoa da, ariketa eta bestelako ekarpen berriekin osatua datorrena, gainera. Ondarea eta balantzea, kontuak, kontabilitatearen euskarri materialak, kontabilitate-prozesua, Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ), izakinak, kobrantza-eskubideak, ordainketa-obligazioak, ibilgetuak, finantza-inbertsioak, pasiboak, eta beste zenbait gai landu dituzte, erabat modu praktikoa eta erabilgarria, kontu-taula tolesgarria ahaztu gabe. 



M.K. URDANGARIN